

## **SAN ANTONIO URKIOLAKOARI ESKARIA**

### *Mendatako Margari Zenigaonaindiak kontatuta*

Joan ei ziran gizon bi Urkiolara, baina bidean topatu eben alkar, bata bide batetik joan zan eta bestea beste bide batetik, eta...

– Zu be Urkiolara? –esan ei eutsan batak besteari–.

– Bai ba, bai ba.

– Klaro zuk be zeure zereginak edo zeozeren eske edo...

– Bai, bai, begitu behi eder bat daukat, ezta,... eta ez jat gelditzen txahalean eta harexentzat behiarentzat sikan txahala emongo baleuke ba... –esan eutsan batak–.

– Tire ba, tire ba, ...

Gero halako baten bestiek be esan eutsan:

– Zuk be badaroazu zeozer!

– Begitu niri pasetan jaten kasue da, gure andra gizonak beti zarataka dabilta, umie gure dabe eurek ezta... eta ez daukie, eta ia neuk pentsatu dot ba neuk urten deitan Urkiolara santueri esanda ia umea konsegiduten badot ba.

– Bai ba, bai ba... –esan deutso besteak–.

– Tire ba, tire ba...

Batak umie eskatu eutsan eta besteak txahala. Hurrengo aldian, hainbat denpora pasatu zanean, ostera be alkar ikustea izan zan, orduan Gernikan eta:

– E txo... San Antonio Urkiolakoak zer?

– Txahal eder bat emon deust zu!

– Bai ezta?

– Bai pozik nau –esan deutso– da zu zer?

– Ba soltereak ekarri jok umea, nik ezkonduarentzat gura izan naberen baina, soltereak ekarri jok.

### **Mendata gure geurea danentzat**

Idoia Mallea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo 2002